

EUSKARAZ GABILTZALAKOAN



1. Azalpena

Jarduera honekin saiatuko gara ikasleak kontura daitezen hitz egiterakoan egiten duten kode nahasketaz eta hori buruzko irizpide kritikoa gara dezaten. Ertz askotako gaia da, beraz, bide luzeko lehen urrats gisa proposatu behar dugu. Jarrera aldaketa gerta dadin, gaiari buruzko errefortzu gehiago beharko dituzte eta, kasu askotan, baita ahozko gaitasuna hobetzea ere.

Kode-aldateta zertan den ulertzeko adibideak eta azalpen laburra: [Kode-aldaketa](#)

Ikasleei proposatutako jardueran komeni da zuzentasuna azpimarratzeko tentazioari eustea eta fokua eraginkortasunez eta gustura komunikatzeko gaitasunean jartzea.

2. Jarraibideak



Irudia [tamaina handian](#)

Zer iruditzen zaizue marrazkia? Exajeratua da edo horrela hitz egiten dugu? “*Laster erdaraz eginen dugu, euskaraz ari garelakoan*” esan zuen Lazkao Txiki bertsolariak. Bat egiten duzue?

Gizatalde batean hizkuntza bat baino gehiago mintzatzen direnean hainbat ondorio gertatu ohi dira: kalkoak (esamoldeak hitzez hitz hizkuntza batetik bestera itzultzea) eta kode-aldaketa (esakune berean hizkuntza bat baino gehiago txandakatuz hitz egitea) aipa daitezke, esaterako.

Gertaera horien maiztasuna eta zabalpena hizkuntzen bizi indarraren arabera izaten da (hizkuntzen arteko desoreka erabilera esparruei dagokienez), baita hiztun elebidunek hizkuntza batean eta bestean dauzkaten adierazpen baliabideen arabera ere.

Kontua da horrelakoak zergatik egiten diren. Hau da, hizkuntza ikasteko prozesuan tarteko makulu gisa, une horretan baliabide egokia aurkitu ez dugulako, edo errazkeriaz egiten den eta, gizartean gehien erabiltzen den hizkuntzaren baliabideak behin eta berriro aukeratuz, euskaraz komunikatzeko gero eta gaitasun urriagoa ote dugun.

Horrelako gauzak hizkuntza gutxitu guztietan gertatzen dira. Pau Vidal idazle katalanak, adibidez, gaur egungo katalan hiztunen mintzatzeko moduez arduratuta, ariketa hau proposatu zuen “Nivell Ç” liburuan¹:

“Ideolektoa da linguistikak erabiltzen duen terminoa hizkuntzaren aldaerarik txikiena izendatzeko, hau da norberak hitz egiteko duen modua. Hortaz, norberak aukeratzen dituen hitzek, egitura gramatikalek, edo ahoskatzeko moduek osatzen dute norberaren ideolektoa. Jazten dituzun arropak gordetzen dituzun armairuaren antzeko bat izanen litzateke: badaude aspaldi erosiak eta orain gutxi erabiltzen dituzun arropak, beste batzuk asko gustatzen zaizkizu baina txiki geratu zaizkizu, badira ia egunero erabiltzen dituzunak ere. Antzeko zerbait gertatzen zaigu mintzatzeko erabiltzen ditugun hitzak eta esamoldeak direla eta.

Kontuan hartu gure armairu linguistikoa nahi adina aberastu dezakegula eta horrekin batera esan nahi duguna komunikatzeko gaitasuna hobetu eta indartu.

Proposatzen dizudana zera da: bolada batean apuntatu ohikoa duzun koaderno edo agendan arreta pizten dizuten esamoldeak edo hitz berriak. Gustukoak hizkuntzaren armairura eraman ahalko dituzu. Erreparatu, batez

¹ Testua Pau Vidal “Nivell Ç” liburuko “Com és això que parlo jo: l' idiolecte” atalean oinarritua sortu dugu (39-55. or.)

ere, entzuten dituzunei, irakurtzen dituzuenei baino gehiago.

Ariketa lagun batzuek egiten baduzue, elkarri erakutsi ahalko dizkiozue ikasitako hitz eta esamolde berriak eta, agian, zuen hitz egiteko molde berezia sortu.”

Zer iruditzen zaizue Pau Vidalen proposamena? Egingen duzue hurrengo hilabetean?

3. Oharrak

3.1. Prestaketa

Ikasleek ideolektoa aberasteko ariketa egin dezaten nahi badugu, gutxienez bi saio beharko ditugu: batean jarduera honetan proposatutakoa landu eta bigarrean lortutako emaitzak taldean ikusteko. Ikasturtean zehar egiteko ere egokia izan daiteke. Beraz, irakasleak neurria jarri behar dio jarduerari, lortu nahi duen helburuaren arabera

3.2. Material osagarriak

Sutrai Colina eta Andoni Egañaren bertsoak: [“Laster erdaraz, euskaraz ari garelakoan”](https://bertsoa.eus) (bertsoa.eus, 7 min)

4. Iturriak

Vidal, P. (2021) “Nivell Ç” Bartzelona: Raval Edicions, SLU, Pòrtic